

Rufo Isasti Aizpuru

*Getaria,
Gipuzkoa
(1936-2017)*

Aurkibidea

Biografia



Musikari familiakoa, aita koruko eta bandako zuzendaria eta txistularia zen, nahiz eta bizibidea arrantzatik ateratzen zuen. Rufo bera ere mutikotatik arrantzan ibilia da. 21 urterekin hasi zen "Elkanoren lehorreratzean" parte hartzen eta kanpora ere joan izan dira antzeztera.

Zintak

GET-005

• **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-05-09
- **Iraupena**: 44 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. "Elkanoren lehorretaratzea" irudikatzea aspaldikoa

- **Erref**: GET-005/002
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:03:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Rufo 1957an hasi zen "Elkanoren lehorretaratzean" parte hartzen, baina aurretik ere egiten zuten. Elkano joaten zen aurretik eta beste hiru atzetik.

2. Aita koruko eta bandako zuzendari

- **Erref**: GET-005/004
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Aita eta osabak musikariak ziren. Aita koruko eta bandakoa zuzendaria eta txistularia zen. Aita arrantzalea zen eta itsasotik itzultzen zenean, bisigutatik, lanak amaitzen lagundu behar izaten zioten San Anton egunean jo egin behar izaten zuelako. Getariako bandakoek itsasotik etortzean larunbatetan entsaiatu behar izaten zuten.

3. Bandak igandero jotzen zuen plazan negu partean

- **Erref**: GET-005/006
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Bandak igandero jotzen zuen plazan. Bina piezako hiru txanda egiten zituen bandak eta tartean gramola eta txistua egoten ziren. Jende nagusiak denak dantzan ibiltzen ziren, baina gazteak Zarautzera joaten ziren. Negu partean bakarrik jotzen zuen bandak, udaran atunetara joan behar izaten zen eta.

4. Giro bila Zarautzera

- **Erref:** GET-005/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

<p>Gazteak Zarautzera joaten ziren giro hobe zegoelako eurentzat eta gurasoek ez ikusteagatik. Joan-etorriak askotan oinez egiten zituzten. Gerora "Nahia" izeneko taberna zabaldu zuten eta handik ordu txikitan ateratzen ziren. Beraiek, arrantzaleak izanik, zarautzarrek baino diru gehiago izaten zuten. Pixka bat nagusitu zirenean, kotxea zutenez, larunbatean joaten ziren Zarautzera eta nahi zutenean itzuli.</p>

5. Gazte-gaztetatik itsasoan lanean

- **Erref:** GET-005/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Bisigutara joatea gogorra izaten zen. 13 urterekin hasi zen itsasoan lanean eta 14rekin enrolatu. Hiru urte inguru egin zituen bisigu garaian sotoan tertzak betetzen eta 17 urterekin itsasora atera zen. Patroiek gazteak eramatea nahi izaten zuten. Orduan 50 urtekoa zaharra ikusten zen, janzkeragatik edo. 65 urte ingururekin uzten zitzaion itsasora joateari. Berak 55ekin utzi zuen.</p>

6. Bisigutako kontuak; distantziak, tertzak, lexikoa

- **Erref:** GET-005/012
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

<p>Bisigutako arrantza gogorra izaten zen, baina gero egunero jaten zuten bisigua. Erreta jaten zuten normalean, baina behin San Antonak ezkerro pusketak eginda. Goizeko ordu bietan jaikitzen ziren itsasora joateko. Frantzia aldera joaten ziren. Ze distantziatara joaten ziren eta distantziak nola neurtzen zituzten. Korrederarekin neurtzen zuten distantzia. Tretza bakoitzak

180 amu inguru izaten zituen eta 70 tretza betetzen zituzten lau lagun artean. Lexiko interesgarria. Supilla: "madria bezala amarratuta joaten zen txikota". Kordela. Bakoitzak 60 metro zituen. Honen inguruko azalpenak. 4-5 ordu egiten zituzten alatzen.

Transkripzioa

- Ta bixigutako [egoera] ziharo txarra, e!
- Bai, e?
- Puuu! Diru gutxi irabazi... Oain, eunero jaten giñun bixigua, e! Arrai frexkua! Oain ya zenbat baliyo duan? Esaten giñoun nagusiyai ta, "bixigua?", ta ez zeon problemikan. Bere aurrian garbitu ta geo etorri ta erre ta. Ta geo, behin sanantonak pasatu ezkeo, pusketak inda. Ordun asko jaiotzen zan ba! Grasa iten zikon, ba... Ta pusketetan arrazo jaten zan, oliyua bota gabe. Eunero bixigua jaten giñun guk!
- Bai, bai! Ez da gutxi!
- Jolin! Garai hartan, bai, bai, bai. Hoixe iten giñun, jateko ona jan. Baiña dirua ez, e! Ta geo treza esaten zun aitak, "treza beteta baldin badabe lojan, argi ibilli ai, e!" Bai, ba, itsasoa juteko... ordu bitan, goizeko ordu bitan jaikitzen giñan. Ta hamazazpi... hamendikan hogeta hamazapi milla juten giñan, Frantziko kosta, pixkat goroxio, [nor(o)estia], hogeta hamazazpi milla. Korreoria eukitzen giñun markatzeko, osea, katxarro bat atzea botata, ta oaintxe ingurura aillatzen zanian, han lagatzen zan ta beitzen ziñun numeraziyuai, ta "oaintxe, oaintxe gaituk, ba!". Ta geo iten giñun hogeita hamazazpi milla, ze, ruta. Eta geo sonda iten giñun. Ez zan aparatuik sonda iteko ta burni haundi batekin erriatu, ta ehun braza zanian, marka. Ta geo banaka-banaka koxkorrak apuntau, honela, beayen koxkorrak, zeatzen, zenbat?, ehun ta hamar, ehun ta hogei... pusketa. Ta geo ur...
- Ta zenbatera botatzen zan?
- Moitzen giñun ehun braza o horrela, ta ya ehun ta larogeira. Ur mehetik hasi, ehun braza, larogeta hamar hasi botatzen, ta uraldika-uraldika, larogeta hamar... berrehun baiño barruro behintzat bukatzen giñun beti.
- Eta esan dezu distantzia neurtzeko...
- Ze, korredera.
- Korredera. Eta korredera...
- Korredera erderaz da, baiño... euskeraz ez dakit.
- Eta, hemen moillan lotu, o...
- Hamen beyan bota. Hamen ertetzen giñunian moilla muturretik kanpora, bras!, bota. Ta, lau bat braza.
- Harri batekin?
- Ez, ez, bea botatzen zan burni... Bea, bea zan burnizkua. Ta bere katxarruai da! ematen zan, fletxai ta, bota, hiru-lau braza atzetikan, barku martxan. Ta oaintxe, aillatzeko relojuakin kalkulatu ta "uaintxe gaitik [...]". Atzea jun, ikusi, ta numeraziyuai ikusi atzian. Eta, "ba, aillatu gaituk". Ta geo in behar ziñun plaia billatu, ze, runbua hartzeko berriz, itsasoa juteko. Ta geo hartzen giñan, berriz sonda hartzen giñun, [...], ta danak illaran jartzen giñan. Hamendikan horrea danak. Eta tarte... hurre're asko, ta geo, nahastu iten giñun.
- Horregatik!
- Hura izaten giñun haserria! Ta ez zeon... Kordak gabe baliyo zuan garai hartako...
- Bai.
- Eta, oan bezela izan bazan bai, amua kendu dana ta dana libre. Baiño, ño!, dana libratu in behar zan. Dana gaiñez txigotezko gauza, e!, dana txigotekua...

- Soka.

- Orduan linolik ez zan, soka. Kordela ta geo supilla. Supilla ta amua honenbesteko pusketa. Ta treza bakoitzak zitun, e, ehun ta larogei bat amo, treza bakoitzak, ehun ta larogei amo. Geo hasi zan pixkat gutxitzen. Bakano ta hobio zala, ta. Baiño, ehun ta larogeta hamar. Ta haiek bete in behar zian, e! Hirurogeita hamar treza, lau lagunen artian.

- Guztira zenbat amu botatzen zian?

- E?

- Guztira zenbat amo botatzen zian?

- Ba, ateako dezu hor, e... Berrogeita hamar treza, ehun ta larogeita hamarrek.

- Ehun ta larogeta hamarrekua... Ba, zortzi milla edo bederatzi milla, o...

- Bai! Haiek danak bete in behar zian egunero! Ta libratu? Alatzian. Baiño egun asko bixigu gutxikin, e!

- Esan dezu, supilla?

- Supilla.

- Zer da supilla?

- Supilla da, txigota, amarria bezela juten zana, amarrauta. Ta kordela zan [...] gora altxatzeko. Kordela. Ta supilla zan, amarre, tiratzen ez zuna, illara guztikua. Bakoitzak zituan hirurogei metro, paño bakoitzian, treza bakoitzak. Hirurogei metro, ta geo iten zan amarratu alkar: hirurogei metro, hirurogei metro... Ta geo iten zan bi trezen partez, [kluisa] bat bota, flotadore bat...

- Flotadore bat.

- Hura. Ta handik hartzen zan. Flotadore [...] hartu ta geo alatzan ai ziñala treza, bestia etortzen zan, ta bestia're hartu, ta gora. Hala, bost ordu edo, lau ordu t'erdi bai alatzan!

7. Berotzeko motorrak arrankatzeko metxak

- **Erref:** GET-005/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

4-5 ordu egiten zituzten alatzan eta sarritan eguraldi kaskarra eta hotzak egoten ziren. Motorrak arrankatzeko erabiltzen ziren metxak erabiltzen zituen berak berotzeko.

Transkripzioa

- Alatzan?

- Alatzan. Ta askotan, e!, ta ez dakit zer. Ta giro kaskarra! Ta hotza...

- Neguan.

- ... ta tristura gogorra. Ta geo iten giñun, leatza harrapatzen giñun ta bertan jaten giñun, baiña ez zan gozatzen. Jendia're debill o, zea, hotza! Hotza, ta gozatasun txikiya. Puf! Nik'e orduan motorra arrankatzeko zian metxeruakin, metxakin, han berotzen zian, berotzeko. Nik, buruan sartu zitzakun ta, nik kalia behera sumatzen nun usai hura, buruan sartuta, metxakin. Metxa batzuek zeatzen zian holako, nola zigarrua pizteko, zigarruak pizteko lehen izaten zian ba [...]?

- Bai.

- Ba, holako puxketak, sua eman, ta sartu, ta estutu, kulatra bakoitzian,

holako lau. Haren usaia ziharo fuertia izaten zan, ba, ta nik usai hura buruan, mareagarriya neretzat. Ooo! [Tistur!] Triste!

- Bai?

- Triste, triste.

8. Tretzak preparatzeko lanaren inguruko azalpenak

- **Erref:** GET-005/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Ofiziorik txarrena zen berarentzat bisigutakoa. Sotoan geratzen zirenean tretzak betetzen goxoagoa izaten zen, tarteka amak jateko zerbait eramaten zien eta. Bisigutako lanean 8 lagun inguru itsasoratzen ziren eta beste 4-5 lehorrean geratzen ziren tretzak betetzen. Itsasotik etortzen zirenean gero lehortu egin behar izaten ziren. Tretzak betetzen goizeko ordu bietatik hamarrak aldera arte egoten ziren. Bakoitzak 12-13 tretza betetzen zituen. Tretza bakoitza betetzeko ordu erdi inguru behar izaten zen. Tretzetan antxoak jartzen ziren karnata moduan amuan. Azalpen zehatzak.

Transkripzioa

- Neetzat, ofiziyoik txarrena. Esaten zuen ona zala, baiño neetzat ez.

Sotokua bai earki! Sotuan geatzen giñanian, amak ekartzen ziun sei t'ardiyak zazpirak aldian kabitzen ez giñakin zopak in kazuan eta geo, hamarrak aldian, arrautza erdi bat edo arrautza bat, pusketa bat ekartzen ziun. Geo berriz arrebak eo ekartzen zituen. Ta gizon zaharrak nahio izaten zuen, bai ba, hamaiketakua barkuan kontura ekartzen zan ardua, ta zaharrak, [han antxua] iteko're baakizu, ez zeon. Ta haiek gustoa. Ta haiek, dana bukatu arte eoten giñan gizon zaharrakin, beakin batian, han eoten giñan.

- Orduan, hori izaten zan neguan bixigutan bakarrik, ez?

- Bai, bixigutan, bixigutan.

- Eta izaten zan tripulaziyoko parte bat edo lehorrian geratzen zana, ezta?

- Bai. Itsasoa juten giñan zortzi, betzi. Ta lehorrian beste lau edo bost. Hola ibiltzen zan.

- Tretzak, karnata...

- Bai, betetzen.

- Karnata betetzen.

- Ta geo itsasotik ekartzen zituen askotan, nahasteik ez baldin bazan, libratuta. Ta haiek in bihar zian hurrengo egunian sekatu. Itxian giñakaun bi mahaiko silla holako, bi holako silla, ta geo arraun pare bat. Gau guztiyan sua martxan. Arrauna hoiek jarri zabal zabal ta trexak. Ta geo [okasiyuak]. Geo sekatu ta aitei behera eraman behar, arrebak eta eramaten zituen. Ta geo iten zan txotxetikan, txotxa holako pusketa izaten da, egurra, ta han amua sartzen zan. Ta bi istutzen zianian zeakin, bustiyakin [...], geo lehortzen zianian lasaitu iten zan. Ta igual brasa erten. Okasiyuak! Oooo! Bakizu, pixkat goor samarrak zian, karakterra're... uuuu! [...]. Geo gizon haundi samarrak zian, ta puuuu! Ixilikan eonda, hobia. Ez kontestatzia munduko gauzikan earrena haientzat.

- Eta lehorrian getzen ziñaten lauak, zuen lana ze izaten zan?

- Bete!

- Goizian goizo...

- Goizian ordu bitan. Ordu bitan [saltoena] in makinistai ta kuadrillai, ta etorri sotoa ta hasi ta hamarrek alde arte. Hola bakoitzak'e hamar-hamabi milla treza betetzen giñun. Ordu erdi batian... Azkarrauak bazian, baiño guk ordu erdi bat o ibiltzen giñan, treza bakoitza. Ehun ta larogeitaka, ordu erdi bat o hola ibiltzen giñan.

- Eta trezak, karnata hartu eta ze, ze, ze in behar izaten zan?

- Antxua, antxua.

- Antxua, amuai jarri...

- Amuai jarri antxua, ta [...] texaola. Texaola haitan.

- Texaolan.

- Texaola izena zuan. Holako tabla bat eta geo beheia pixkat laga, eta lixtoi bat. Lixtoi bat honela jartzen zan, ta geo [...] bat atian palillatzen, goraka-goraka, betetzen. Ta geo hura itsaso beika jarri, asteburua ta, dana banaka-banaka [...], tza-tza-tza-tza-tza. Ez al dezu ikusi pintxuan ta hola reportajia? Tipo hori, igual-igual. Hura, martxa haundiyakin jungo zian, haiek sarriyo, habek, guriak. Igual atzea beira jarri ta ta, geo hantxe bukatzen zanian kendu, ta bestia jarri.

9. Antxoarik ezean karnata moduan lantzoia

- **Erref:** GET-005/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Karnata moduan antxoa erabiltzen zen normalean. Antxoa gutxi zenean lantzoia ere erabiltzen zen. Antxoa asko izaten zen orduan eta ondo moldatzen ziren, baina antxoa harrapatu arte kezka izaten zuten neguan. Tretzak betetzea etxean egiten zuten bisigutara joan aurretik. Izaten ziren urte txarrak ere eta antxoarik ezean lantzoia ekarri behar izaten zen. Baina garai batean oso garesti ere egon zen.

Transkripzioa

- Eta karnatako antxua beti?

- Antxua. Geo gutxi zanian'e, lantzoia're ekartzen giñun, lantzoia're [...] giñun. Ta bixiguantzat, bixiguak jotzen zunian hobe zan zea...

- Lantzoia.

- Lantzoia.

- A, bai?

- Gogorro. Ta ez zun botatzen, zebo firmeo zan. Ta hoixen. Geo antxua're ordun asko zan, antxo polit askua. Antxua, holako antxua. [...] jan laike pare bat paleka, e, txakoliñakin!

- Bai.

- Ta orduan ondo moldatzen giñan. Baiña hura iñ arte, beti kezka. Beti... hura zan neguko ogiya. Hura iñ ezkeo, lasaitutzen zan.

- Antxua?

- Bai, antxua ibiltzen zanian, "bixigutako garnata in diguk, behintzat eta". Ta geo bakoitzak norbeak iten giñun hamalau o hamabosna treza berriyak,

ta amua jo, ta bakoitzak, bakoitzak, lagun bakoitzantzako horrenbeste. Lagunak iten zituen, lagun bakoitzak hamabi, hamalau treza, berriya.

- Berriya.
- Itxian, itxian iten giñun. Batzuk...
- Hori noiz egiten zan?
- Etxian [bankotik] ez bazeon, ta iltze bat sartu, ta aurrenengotik jo ta bestiai aitak peatu, ta. Sillan, etxe barruan. Etxe barruan iten zan.
- Eta hori neguan?
- Neguan. Neguan.
- Udazkenian?
- Bixiguta jun baiño lehenotikan. Garnata iten giñunian. Garnatik ez bazian iten, ez zeon trezik iteikan. Ez zeon trezik iteikan garnata behar zulako. Garnata in behar.
- Eta izan zan urteren bat, gogoratzen dezu, urte txarren bat?
- Bai.
- Antxua gutxi, eta...
- Bai, bai, bai. Ziharo. Ta geo ekarri're iten giñun, lantzoia ta hori. Lantzoia're etortzen zanian, lantzoia gehio sartu behar.
- Erosi in behar?
- Ez, lantzoia geuk iten giñun! Baiño hura're gutxi, ta hura garesti, bakizu. Garai hartan, e, kuarentaiseisian o hola, hoge duro balixo barriyak! Zeak, nola... zenbatekuak izango zian hurak? Hamabost, hamabost hamasei bat kiloko, hola [...] dan ontzi bat zan, Donostiyan. Baiño ziharo urriya. Hamabost hoge etxea iten giñun, poitua iteko. Ta poitua iten zuenian, bai poito polita garai hartako. Lanian! Goorra, goorra! Lehenore goorra, ta uain'e goorra.

10. Gaur egungo egoera; arrain-klaseak galtzen

- **Erref:** GET-005/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Natura » Flora

Laburpena:

Gaur egungo egoera. Antxoaren gorabeherak ez direla normalak uste du; urte batean antxoa txiki ugari eta hurrengoan batere ez. Bisigua ere oso gutxi ikusten omen da. Galtzen ez dena lasuna da, inork ez du harrapatzen eta. Arrain-klase asko ari omen da galtzen.

11. Goizean meزالagun, tertzak betetzen aitari lagundu, eta arratsaldean eskolara

- **Erref:** GET-005/017
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

13 urterekin hasi arren itsasoan lanean, aurretik ere aitari laguntzen ibiltzen zen. Lehenbizi monagilo lanak egiten zituen, eta gero aitari laguntzen zion tretzak betetzen. Handik eskolara joan behar izaten zuen; baina, sarritan, eskolara beharrean, baserrira joaten zen lehengusuarengana taloak jatera. Arratsaldean, eskolara joaten zen. Dotrina euskaraz ikasten zuten, baina eskola erdaraz.

12. Bi urte Cadizen soldadutzan

- **Erref:** GET-005/018
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Soldadutza Cadizen egin zuen. Sakristau gisa egon zen hirurogei mila biztanle zituen hiriko elizan. Bi urte egin zituen han. Diruz gaizki ibiltzen ziren. Berari arrebak 40 duro bidaltzen zizkion hilean, baina sarritan etxean dirurik ez eta han zeudenei ezin bidali. Bi urtean bi baimen bakarrik izan zituen. Hiru egun tardatzen zituen etxera etortzen Madrildik bueltan. Itsasotik aparte oso bidaia gutxi egin omen ditu kanpora.</p>

13. Udaletxe ondoan eskolak don Fernando irakaslearekin

- **Erref:** GET-005/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Udaletxe ondoan zen eskola eta herriko neska-mutiko guztiak bertan ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Maisua don Fernando zen, kanpotarra. Gaztelaniaz ez zekiten, baina klaseak hala izaten ziren.

14. Monagilo-lanak; organistaren inguruko kontuak

- **Erref:** GET-005/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Monagilo egiteko latinez ikasi behar izan zuen. Zazpi-zortzi urterekin hasi

zen monagilo lanetan anaiaren orde, hau itsasoko lanetan hasi zenean. Aita koroko zuzendaria zenez, organistaren bitartez sartzen ziren monagilo lanetan. Solfeoa ere ikasten zuten bazkalaurretik. Organistari hiru litro ur ekarri behar izaten zizkioten egunero Iturritxikitik. Monagilo-lanak zeintzuk izaten ziren.</p>

15. Egunean lau meza; apaiz bakoitzak bere monagiloak

- **Erref:** GET-005/022
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Bera egon zenean lehenbizi zegoen apaiza don Tomas Zupiria zen. Hura Donostiara joan zenean don Andoni Andonegi mutrikuarra etorri zen Kubatik. Egunean, lau meza izaten ziren. Apaiz bakoitzak bere monagiloak izaten zituen. Bera beti goizeko 6ak eta erdietako mezan egoten zen. Igandetan jende gehixeago egoten zen, baina astegunean ia inor ez.</p>

16. Umetatik arrantzan pantxotan

- **Erref:** GET-005/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Umetan hasi ziren eurak arrantzan pantxotan, 7-8 urterekin. Pantxo nahikoa izaten zen, baina etxean oliorik ez hura frijitzeko. Ama arraina saltzera joaten zen eta diru harekin etxerako behar zituenak erosten zituen. Txaluparekin ere joaten ziren harri bila.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com